

**XEDAPENA, 2024KO APIRILAREN 22KOA, OSATEK SA-KO ZUZENDARI GERENTEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA OPOSIZIO FASEKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA, PUNTUAZIOAREN ARABERA, TEKNIKARI MANIPULATZAILEAREN KATEGORIAN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO OPOSIZIO LEHIAKETA BIDEZ OSATEKEN DESTINOA DUENA.**

Osatekeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 28ko xedapen baten bidez, onartu egiten da plazak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautzen dira lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, Osatek SAN aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi berezi baten bidez.

Osatekeko zuzendari gerenteak 2022ko azaroaren 30ean emandako xedapenaren bidez, onartu egin ziren oposizio-lehiaketa bidez lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak, Osatek SAN destinoa duten teknikari manipulatzailearen kategorian.

Osatekeko zuzendari gerentearen 2024ko martxoaren 21eko xedapen bidez, onartu egin zen oposizio-faseko izangaien behin-behineko zerrenda, puntuazioaren arabera, lan-kontratu finkoko langile izateko, Osateken destinoa duten teknikari manipulatzailearen kategorian, oposizio-lehiaketa bidez.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, oposizio-faseko izangaien puntuazioaren arabera behin-behineko zerrenda egin ondoren, zuzendari gerenteak oposizio-faseko izangaien behin betiko zerrenda onartu du, puntuazioaren arabera.

Era berean, eta aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi bereziaren bidez lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorren 11.2.2 oinarriarekin bat etorriz, merezimenduak alegatzeko epea irekitzen da.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

#### EDATZEN DUT

**Lehenengoa:** Oposizio-faseko izangaien behin betiko zerrenda onartzea, puntuazioaren arabera. Zerrenda hori xedapen honen eranskinean dago.

**Bigarrena:** Xedapen hau Osateken webgunean ([www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/](http://www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/)) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)) argitaratzeko agintzea.

**Hirugarrena:** 10 egun balioduneko epea ematea izangaiei merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, Campo & Ochandiano enpresaren web-orriaren bidez ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)), helbide elektronikoaren bidez [op-tm6597osatek@campo-ochandiano.com](mailto:op-tm6597osatek@campo-ochandiano.com) edo Osateken egoitzan (Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua). Bizkaia Plaza eraikina. 48011 Bilbao.



Data/fecha: 2024 API. 22  
ABR. 22

Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones

ZK/Nº: 33/2024

Bilbon, 2024ko apirilaren 22an.

Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz